

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK

2025-2026 ikasturtea

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua
Ebaluazioa Atala

1. ZER DA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA?

Ebaluazio diagnostikoa hainbat konpetentzia-probaren bidezko ebaluazioa da, Hezkuntza Departamentuak urtero burutzen duena Nafarroako ikastetxe guztietan. Bi mailatan egiten da, Lehen Hezkuntzako 4. mailan (LH 4) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan (DBH 2).

2. ZEIN KONPETENTZIA EBALUATZEN DIRA?

Maila eta hizkuntza-ereduaren arabera:

LHko 4. mailan:

B eta D ereduak	A eta G ereduak	1. Gaztelaniazko hizkuntza-konpetentzia
		2. Ingeleseko hizkuntza-konpetentzia
		3. Konpetentzia matematikoa
		4. Euskarazko hizkuntza-konpetentzia

DBHko 2. mailan:

B eta D ereduak	A eta G ereduak	1. Gaztelaniazko hizkuntza-konpetentzia
		2. Ingeleseko hizkuntza-konpetentzia
		3. Konpetentzia matematikoa
		4. Konpetentzia zientifikoa
		5. Euskarazko hizkuntza-konpetentzia

3. NOIZ EGINGO DIRA PROBAK?

DBHko 2. mailan, apirilaren 17an, 20an eta 21ean.

2026ko APIRILA						
Al	As	Az	Og	Os	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

LHko 4. mailan, maiatzaren 7an, 8an, 11n eta 12an.

2026ko MAIATZA						
Al	As	Az	Og	Os	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

4. NON EGITEN DIRA PROBAK?

Ikastetxean bertan, ohiko geletan eta bertako irakasleekin.

5. NORK ANTOLATZEN DU EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA?

Hezkuntza Departamentuak proben prestaketa koordinatu eta gainbegiratzen du, eta materiala inprimatu eta banatzen du.

Espezialitate bakoitzean aditu-talde batek prestatzen du proba bakoitza.

Ikastetxeetako irakasleek probak aplikatu eta zuzentzen dituzte.

6. ZEINTZUK DIRA EBALUAZIO HONEN EZAUGARRIAK?

- **Zentsala da:** ikasle guzti-guztiek egiten dute.
- **Estandarizatua da:** ikasle guztiek proba berberak egingo dituzte, egun eta ordu berean.
- **Zehatza eta objektiboa da.**
- **Konpetentzia-izaera du:** etapan zehar lorturiko konpetentziak neurtzen dira.

7. ZERTARAKO BALIO DU EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK? ORIENTATZEKO, HOBETZEKO ETA INFORMATZEKO.

- Hezkuntza Departamentuak, **bere jarduerak bideratu ahal izateko**, hezkuntza-sistemaren mailari buruzko informazioa eskuratzeko eginkizuna du ebaluazio hau.
- Ikastetxeek **hobekuntza-planak** ezartzeko eta berariazko neurriak hartzeko tresna da ebaluazio hau.
- Familiek eta ikasleek **informazio osagarria** jasotzen dute.

8. NOLA AZTERTZEN DIRA EMAITZAK?

LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek onlineko testuinguru-galdetegi bati erantzuten diote, **ikastetxearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEKa)** lortzeko aukera ematen duena.

Horretan oinarritua, ebaluatutako konpetentzia bakoitzean ikastetxearen zenbatetsitako puntuazioa kalkulatzeko da, hau da, ikastetxe bakoitzak bere testuinguru sozioekonomikoaren eta kulturalaren arabera lortu beharko lukeen puntuazioa.

Galdetegi honetan ikasleek emandako erantzunak erabat anonimoak dira (erabiltzaileak eta pasahitzak ez daude persona bati lotuta).

Ekainean hainbat txosten lortzen dira:

- **Orokorra:** Nafarroa osokoa.
- **Ikastetxearena:** ziklo edo departamentu bakoitzak eta zuzendaritza-taldeak nahitaez egin behar dituzte azterketa, balorazioa eta hobekuntza-proposamena.
- **Banakakoa:** familia bakoitzak konpetentzia bakoitzeko emaitzen gaineko txosten bat jasotzen du.

9. EBALUAZIO HONEK AL DU ONDORIO AKADEMIKORIK IKASLEENTZAT?

EZ. Mailaz promozionatzea ez dago ebaluazio honen mende.

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

2025/2026 ikasturtea

Lege esparrua:

- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, 144. artikulua.
 - Ikasturte hasierako jarraibideak, 350/2025 Ebazpena, maiatzaren 30ekoa: I. eranskina, I. B), 6. artikulua; II. Eranskina, I. B), 6. artikulua.
-